# 2019/2020 ikasturte amaiera seguru, adostu eta kalitatezko baten aldeko sindikatuon proposamena Hezkuntza Sailari

## Sarrera

Azken asteotan Hezkuntza Sailak ikasturte amaierara begira gure eskoletarako egin dituen planteamenduak eta horien gaineko ondorengo aldaketak, bizi dugun pandemia larriak eskatzen dituen osasuna bermatzeko irizpideak lehenetsi barik, irizpide pedagogikoak baztertuz eta beharrezko adostasunik gabe gauzatu ditu sindikatuon ustez;

Maiatzak 7an aurrez aurreko eskolekin hasteko aurkeztutako planaren ezaugarri nagusienak inprobisazioa, prezipitazioa eta aldebakarrekotasuna izan dira. Planak, langileon ordezkarion, zein oro har Hezkuntza Komunitate osoaren gaitzespena eta kritika jaso zituen. Eta presio honen ondorioz, derrigorrez hainbat etapa, maila eta zentrutan aurrez aurreko ikasketak maiatzak 18tik aurrera abian jartzeko asmoan atzera egitera behartuta egon da Jaurlaritza.

Hezkuntza Sailak hasierako planteamenduarekiko hartu dituen ondorengo **erabakiak** ordea, hezkuntzako langileon ordezkariokin **partekatu, negoziatu eta adostu gabekoak izaten jarraitu dute.** Hau da, ikasturte amaierara- zein hurrengo ikasturte hasierara- begira, hartu beharreko osasun- neurriak zein akademikoak nagusiki aurrera eraman behar dituzten pertsonen ahotsa entzun gabe.

Bestalde, 2019/2020 ikasturte amaierarako Hezkuntza Sailak egindako azken planteamenduak ere (*) osasunerako berme eta irizpide pedagogikoak modu egokian uztartzen ez dituen planteamendu bat izaten jarraitzen du:

. **Osasun bermeei dagokionez**. Hezkuntza Sailak momentuz artikulatutako prozesu eta neurriek **gabezia nabariak** dituzte.

- Hezkuntza Sailak ez du langileen ordezkariekin itzulera protokolorik, neurririk ez eta baldintzarik partekatu zein negoziatu, prebentzioari buruzko legediak ezartzen duena urratuz. Nolabaiteko dokumentazioa lehenengo aldiz ostiralean -maiatzak 15- bidali zitzaigun; dokumentuaren edukia eztabaidatu eta ekarpenak egiteko betarik eman gabe. Maiatzak 20an gaude eta maiatzak 25erako planteatzen da itzulera, eta gaur gaurkoz sindikatuokin plangintza partekatzeko deialdirik gabe jarraitzen dugu.

- Ikastetxe bakoitzean COVID 19agatiko arrisku ebaluaziorik ez du gauzatu edota ez zaigu langileon ordezkarioi jakinarazi (eskaera gauzatu dugun arren).

---

(*) Maiatzak 18tik maiatzak 25era atzeratu du aurrez aurreko ikasketei hasiera eman ahal izateko epea DBH4, Batxilergoko 1 eta 2, Lanbide Heziketan, Heziketa Bereziko zentruetan; zein etapa konkretutan, zein ikas-talderentzat eta zein datetan ikastetxe bakoitzak erabaki dezakeelarik. 0-3 adineko etapari dagokionez oraindik erabakia definitiboa ez bada ere, adin honetan aurrez aurreko ikasketak abian jartzeko aukera irekita mantentzen du.

- Protokoloan jasotzen diren neurri eta jarraibide orokorrak, Ikastetxe bakoitzak landu eta gauzatu behar duen kontingentzia planean modu egokian txertatzeko eta gauzatzeko oso epe laburrak daude, aste bete eskas. Osasun arrisku serio bat ekar dezakeen presa maila ikusten dugu.

- Protokoloan jasotzen diren neurri orokor asko bestalde eztabaidagarriak dira:

.- **Ikasle ratioa 15 ikaslera mugatzea aurrez aurreko irakaskuntzan esaterako,** Eraikuntzako Kode Teknikoaren arabera baldintza normaletan eta gela bakoitzaren erabilpenaren arabera, ondorengoa litzateke gela baten gehienezko okupazioa kalkulatzeko erabili beharreko irizpidea:

- ✓ Laborategiak, tailerrak, gimnasioa, marrazketa-gelak, etabar: 5 $m^2$/pertsonako.
- ✓ Ikasgelak: 1,5 $m^2$/pertsonako.
- ✓ Haur hezkuntzako ikasgelak: 2 $m^2$/pertsonako.

Gaur egun ordea, COVID-ak eragindako testuinguru honetan ez gaude baldintza normaletan eta beraz, ezarri beharreko okupazioa murriztu beharko litzateke, ez zenbateko orokortu batera (Sailak egin duen moduan) baizik eta kodeak dionari murriztapenak ezarriz.

.- **Ikasgeletan maskararen erabilera ezinbestekotzat jotzea:** Prebentzio Legeak dioenari jaramon egiten badiogu, ez litzateke egokia maskararen erabilera orokortua ezinbestekotzat jotzea, ondorengo arrazoiengatik:

- ✓ Alde batetik, denbora luzean maskara erabiltzeak osasun arazoak ekar ditzakeelako (hainbat ikerketek agerian utzi duten moduan). Esate baterako, arnas aparatuko gaixotasunak, maskararen eraginez ahoan sortzen den hezetasunak eragindako onddoak, etab.
- ✓ Bestetik, Prebentzio Legediak dioen moduan (15.artikulua), *“Babes kolektiboa norbanakoaren babesaren aurretik jartzen duten neurriak hartu behar dira”.*

.- **Eskola-postuen arteko distantzia 1,5 metrokoa izatea:** Orain arte, erreferentziazko segurtasun-distantzia 2 metrokoa izan da argitaratu izan diren prozedura eta dekretu guztietan (esate baterako, tabernetako terrazetako mahaien arteko gutxieneko distantzia). Gure harridurarako, Hezkuntza Sailak 1,5 metroko distantzia ezarri du segurtasun berme gisa. Orain arte segurtasun bermea 2 metroko distantzia mantentzea bazen, zergatik ikastetxeetan 1,5 metrokoa? Nolako segurtasun bermea ematen du distantzia honek?

.- **Garbiketen maiztasuna:** irizpide orokor gisa ezartzen da instalazioen garbiketa gutxienez egunean behin egin beharko dela, ukipen handieneko azalerei eta ekipamenduei arreta berezia jarriko zaielarik. Hiru gabezia aipagarri ditu protokoloak garbitasunaren aferari dagokionean:

- ✓ Alde batetik, garbiketak egunean behin eginda ez da inolaz ere bermatzen instalazioen higienea

Garbiketen maiztasuna ondo aztertu beharreko faktorea litzateke eta ez arinki kontsideratu beharrekoa. Langile eta ikasleen osasuna eta segurtasuna bermatu nahi bada, garbiketen maiztasuna konstantea izan beharko litzateke, gehien erabiltzen diren gela eta gainazalei garrantzia berezia emanez.

- ✓ Bestetik, ez da inon aztertzen maiztasun hori handitzeak garbitasuneko langileengan eragingo duen lan zamaren handitzea. Sakonki aztertu beharreko gaia litzateke eta Hezkuntza Sailak ez dio ilara bat bera ere eskaintzen gai honi.
- ✓ Garbiketa eta desinfekzioa areagotu behar bada, garbiketa azpikontratatuturik dagoen kasuetan enpresei zerbitzua handitzeko, ikasleak dauden bitartean garbitzeko (ordutegia handitzea edota moldatzea ekar lezake honek) zein langile gehiago kontratatzeko eskaria egina dagoen ez dakigu. Langile hauei oraingoz ez diete ezer jakinarazi. Hezkuntza Sailaren kontratupeko garbitzaileen kasuan ere, garbiketa eta desinfekzioa egiteko jarraibide eta prestakuntzarik oraingoz ez zaie eman.
- ✓ Azkenik, garbitasuneko langileek kutsatuak egon daitezken gelak eta gainazalak garbituko dituztela kontuan harturik, Hezkuntza Sailak kontuan hartu beharko luke langile hauentzat aplikagarria litzatekeela 664/1997 Errege Dekretua, Arrisku Biologikoei dagokiena. Hau hala izanik, bertan jasota datozen prebentzio- eta higiene-neurriek guztiz aplikagarriak izan beharko lukete.

**.- Ebaluazio-probak:** Ebaluazio-probak paperean egingo direla ulertzen da protokoloaren irakurketa eginez, baliabide telematikoak erabili beharrean. Pandemia eragin duen birusa gainazaletan itsatsia gera daiteke denbora luzez. Osasunaren Munduko Erakundeak dioenaren arabera, birusak 24 ordu inguru biziraun dezake kartoi edo paperezko gainazaletan. Beraz, Sailak proposatzen duen ebaluazio modua irakasleen segurtasun eta osasunerako kaltegarria izan daiteke.

.- Aipatutako guztiaz gain, protokoloak ez du inondik inora garrantzia handia duen beste alderdi bat aztertzen: Ez dira kontuan hartzen langileek lan egiteko egoera eta prozedura hauek eratorri ditzaketen **Arrisku Psikosozialak**, ez eta hauek ekiditeko aplikatu beharko liratekeen prebentzio-neurriak. Guztiz ezinbestekoa da arrisku hauek ebaluatzea eta beharrezkoak liratekeen neurri guztiak hartzea irakasleen pairatu ditzaketen ondorioak ekidite aldera.

.- etabar luze bat.

**. Irizpide pedagogikoei dagokionez.** Hezkuntza saila aurrez aurreko ikasketak hastea planteatzen ari den etapa/kasu gehienetan 2019/2020 ikasturte lektiboa praktikoki amaituta dago, eta jadanik ikastetxeek antolatuta daukate ikasturtea, ebaluazioak etab. on line nola amaitu. Horrela, DBH4 eta Batxilergoko 1. mailako ikasturte lektiboa maiatzak 29an amaitzen da eta Batxilergoko 2. mailakoa berriz, maiatzak 19an.

0-3 adineko ikasketei dagokionez, aldiz, osasuna bermatzeko hartu beharko liratekeen neurri oinarrizkoenak hartuz adin honetako haurrek dituzten behar pedagogiko eta emozionalak asetzea ezinezkotzat jotzen dugu.

Lanbide Heziketan praktikaldian leudeke ikasleak eta ikasketa praktiko presentzialak aurrera eramateko hartu beharreko osasun neurri bermedun eta egokiak abian jartzea konplikatuagoa da oraindik ere.

**. Ikasleen aukera-berdintasunari dagokionez.** Hezkuntza sailak, ikastetxeen autonomiaren aitzakipean, bere arduraz beste eginez, ikastetxe bakoitzari pasa dio maiatzak 25etik aurrera aipatutako etapen/kasuen artean (DBH4, Batxilergoko 1 eta 2, Lanbide Heziketa, 0-3 adineko ikasleak), zein etapetan, zein datetan eta zein ikastalderentzat presen1tzialki hasi erabakitzeko pisua eta ardura. Ikastetxe desberdinek har ditzaketen erabaki desberdinak kontuan izanik, ikasleen arteko desberdintasunak sortu eta areagotzeko arriskua dakar horrek.

Aipatutako guztiari gehitzen zaio, atzo bertan, maiatzak 19, Hezkuntza Sailak hezkuntza publikoko langileen aurrez aurreko itzulerarako atera zuen jarraibidea, zein itunpeko ikastetxe eta ikastoletako patronalek egin dituzten plangintza propioen inguruko jakinarazpenak.

Hezkuntza Saila, ikasturte amaierari begira egiten ari den kudeaketa inprobisatu, prezipitatu eta planifikatu gabearen ondorioz, hezkuntzako langileak, ikasleak, eta oro har hezkuntza komunitateko kide guztiak ziurgabetasun eta kaos egoera onartezin batean kokatzen ari da.

Hau guztia kontuan hartuta, eta Hezkuntza Sailaren planteamenduari ikusten dizkiogun gabezia eta hutsuneen aurrean, zein egoera kaotikoaren aurrean, sindikatuok 2019/2020 ikasturte amaiera seguru, adostu eta kalitatezko baten aldeko proposamena bat helarazten diogu Hezkuntza Sailari EAEko Hezkuntza sistema osorako.

## Ikasturte amaiera seguru baterako sindikatuon proposamena

▪ Ikasturte amaierako plangintza zein aurrez aurreko itzulerarako baldintzak, neurriak, protokoloak eta prozesuak langileon ordezkariokin negoziatu eta adostuak izateko, negoziazio prozesu errealak abian jartzea.

▪ Bidalitako osasun protokolo eta gainerako dokumentazioan jasotako prozedura zein edukiei ikusitako gabeziei dagokionez:

- Ikastetxe bakoitzeko COVID 19agatiko arriskuen ebaluazio zein honi egokitutako kontingentzia-planak langileon ordezkariekin partekatzea eta adostea.
- Protokoloan jasotzen diren neurri konkretuak langileon ordezkariekin partekatu, eztabaidatu eta beraien komenigarritasuna aztertzea.

▪ Hezkuntza Sailak ikastetxe guztientzat irizpide berbera finkatzea aurrez aurreko ikasketei ekiteko (zein etapetan, zein ikastalderentzat), horrela ikastetxe desberdinetako ikasleen arteko arrakalarik sortu edo areagotzea ekiditeko.

▪ 2019/2020 ikasturtean aurrez aurreko ikasketak berrartu behar diren erabakitzeko, ikasketa presentziala abian jartzeak dakarren osasun arrisku gehigarria eta ikasleentzat izan ditzaken onura pedagogikoen arteko ponderazio ariketa serio bat egin beharko litzateke. Sindikatuok ariketa hau egin ondoren, ikasturte honetarako

ikasketa presentzialetara itzulera EBAU azterketa prestatzeko beharra duten 2. Batxilergoko ikasleentzat soilik mugatzea proposatzen dugu.

Konfinamenduaren ondorio kaltegarriak modu gehigarri batean jasan dituzten ikasleen kasuan (arrazoi sozioekonomikoengatiko, arrakala digitalaren ondorioz nagusiki, on line ikasketetatik erabat deskonektatuta egon diren eta hala jarraituko duten ikasleentzat) errefortzu gisa aurrez aurreko ikasketak planteatzeko aukera eta hauei mugatuta ere aztertu beharko litzateke.

## Eskaera

Aurrez aipatutako guztia kontuan izanik, idatzi hau sinatzen dugun sindikatuok Hezkuntza Sailari eskatzen diogu, ikasturte amaierako plangintza zein eskoletara aurrez aurre itzultzeko baldintzak, osasuna bermatzeko protokolo eta prozedurak zein neurri zehatzak langileon ordezkariokin negoziatzeko eta adosteko prozedura abian jartzeko;

Era berean, negoziaketa prozesu horiek gauzatu arte eta sindikatuok gaur bidalitako proposamenenean jasotako eskaerak betetzen ez diren bitartean, ikasturte amaierara begirako aldebakarreko erabakiak bertan behera utz ditzala, hezkuntza publikoko langileak eskolara presentzialki itzultzeko maiatzak 19ko jarraibidea barne.

Euskal Herrian, 2020ko maiatzaren 20an.

ELA EUSKAL SINDIKATUA — LAB >irakaskuntza — steilas — CCOO irakaskuntza — UGT FeSP Zerbitzu Publikoak Euskadi

# Propuesta de los sindicatos al departamento de Educación para un final de curso 2019/2020 seguro, acordado y de calidad

## Introducción

Los planteamientos que ha realizado el departamento de Educación ante el final de este curso en nuestros centros escolares, y los cambios introducidos posteriormente en ellos, han sido hechos en nuestra opinión sin priorizar los criterios de seguridad sanitaria exigidas por la grave pandemia que sufrimos, sin tener en cuenta los criterios pedagógicos y sin buscar el acuerdo necesario para ello.

El plan presentado el pasado 7 de mayo para emprender las clases presenciales peca de improvisación, precipitación y unilateralidad. El plan ha recibido la reprobación y crítica de la representación sindical, y en general de toda la Comunidad Educativa. A consecuencia de esta presión, el Gobierno Vasco se ha visto obligado a rectificar en su intención de reemprender las clases a partir del 18 de mayo en diversas etapas, cursos y centros.

Sin embargo, las **decisiones** adoptadas por Educación con respecto a los planteamientos iniciales han **seguido sin ser compartidas, negociadas y acordadas** con la representación de las trabajadoras y trabajadores del sector. Esto es, sin escuchar la voz de las personas que deben realizar en su gran mayoría las medidas sanitarias y académicas de cara al final de curso y el comienzo del próximo.

Por otra parte, también el último planteamiento del Departamento para el final del curso 2019/2020[1] sigue sin compaginar los criterios de seguridad sanitaria y los pedagógicos:

**I.** En cuanto a las **garantías sanitarias,** el proceso y las medidas articuladas hasta el momento por el departamento de Educación adolecen de **importantes deficiencias**:

- El departamento no ha compartido con la representación de los-las trabajadores-as ningún protocolo, medida ni condición para la vuelta, vulnerando lo dispuesto en la legislación de prevención de riesgos. La primera documentación que recibimos fue enviada el pasado 15 de mayo, sin tiempo para debatir su contenido ni hacer aportaciones. Estamos a 20 de mayo y se plantea la vuelta para el día 25; a día de hoy seguimos sin convocatoria para compartir el plan con los sindicatos.
- No se ha llevado a cabo en cada centro una evaluación sobre el riesgo derivado del COVID-19, o no se nos ha notificado a la representación de las trabajadoras y trabajadores (a pesar de que lo hemos solicitado).

---

[1] El plazo para emprender las clases presenciales se ha retrasado del 18 al 25 de mayo en 4ª de la ESO, 1º y 2º de Bachiller, Formación Profesional, centros de educación especial y en etapas concretas, dejando en manos de cada centro con qué grupos y en qué fechas se empezaría. En cuanto a las niñas y niños del ciclo 0-3, aunque la decisión no sea definitiva, sigue abierta la posibilidad de empezar las clases presenciales.

- Hay muy poco tiempo -poco más de una semana- para incorporar adecuadamente las medidas e instrucciones generales recogidas en el protocolo al plan de contingencia que cada centro debe trabajar y llevar a cabo. Observamos una precipitación que puede suponer un grave riesgo sanitario.
- Por otra parte, muchas de las medidas generales contempladas en el protocolo son discutibles:

- Por ejemplo, **reducir la ratio de alumnado por clase a 15 personas en la enseñanza presencial.** Según el Código Técnico de Construcción, en condiciones normales y en función del uso de cada aula, el criterio para calcular la ocupación máxima debería ser la siguiente:

✓ Laboratorios, talleres, gimnasio, aulas de dibujo, etc.: 5 $m^2$/persona.

✓ Aulas: 1,5 $m^2$/persona.

✓ Aulas de educación infantil: 2 $m^2$/persona.

Sin embargo, actualmente, en esta coyuntura condicionada por el COVID-19 no estamos en condiciones normales y, en consecuencia, debería reducirse la ocupación establecida, no a una cifra general (tal como ha hecho el departamento), sino fijando restricciones sobre lo dispuesto en el código.

.- **Obligación de llevar mascarilla en las aulas:** Si tenemos en cuenta lo que dice la Ley de Prevención, no sería adecuado obligar a llevar la mascarilla como norma general, por las siguientes razones:

✓ Por un lado, el uso de la mascarilla por un tiempo prolongado puede provocar problemas de salud (tal como han probado varias investigaciones), como enfermedades de las vías respiratorias, hongos originados por la humedad derivada de la mascarilla en la boca, etc.

✓ Por otro, tal como dice la Ley de Prevención (art.15), *“Hay que dar prioridad a la protección colectiva sobre las medidas de protección del individuo”.*

.- **Distancia de 1,5 m. entre escolares:** Hasta ahora la distancia de seguridad de referencia ha sido de 2 metros en todos los procedimientos y decretos publicados (por ejemplo, es la establecida como distancia mínima entre mesas en una terraza de hostelería). Sin embargo, ante nuestro asombro, Educación fija una distancia mínima de 1,5 m. Si la garantía de seguridad hasta ahora estaba en 2 metros, ¿por qué en los centros educativos se reduce a 1,5 m? ¿Qué garantía de seguridad ofrece esa distancia?

.- **Frecuencia de la limpieza:** Se establece como criterio general que la limpieza de las instalaciones se efectuará al menos una vez al día, prestando especial atención a las superficies y equipamientos de más contacto. El protocolo presenta tres deficiencias notables a este respecto:

✓ Por una parte, la higiene de las instalaciones no se garantiza de ningún modo con una limpieza diaria.

La frecuencia de las limpiezas debería ser un factor a analizar a fondo; no se puede considerar a la ligera. Si se quiere garantizar la salud y seguridad de personal y alumnado, la frecuencia de limpieza debería ser constante, dando especial importancia a las aulas y superficies más usadas.

- ✓ Por otra parte, en ningún momento se aborda el aumento de la carga de trabajo que esta frecuencia acarreará a las personas que trabajan en la limpieza. Esta debería ser una cuestión a estudiar en profundidad, pero Educación no le dedica ni una línea.
- ✓ Se dice, y lo compartimos, que es necesario aumentar la frecuencia de las limpiezas y la desinfección, pero desconocemos si se ha realizado la petición de ampliar el servicio en caso de que la limpieza se encuentre subcontratada o de contratar a más personal. A las trabajadoras afectadas de momento no les han comunicado nada. Al personal directo del Dpto. de educación de limpieza tampoco se le ha facilitado ni formación ni instrucciones de cara a esta limpieza y desinfección.
- ✓ Por último, teniendo en cuenta que el personal de limpieza puede trabajar en aulas y superficies que pueden estar contaminadas, Educación debería tener en cuenta que sería aplicable el R.D. 664/1997 sobre Riesgos Biológicos, y las medidas preventivas e higiénicas contempladas en aquel.

**.- Pruebas de evaluación:** De la lectura del protocolo se desprende que las pruebas de evaluación se llevarán a cabo en papel, en lugar de emplear recursos telemáticos. Ahora bien, el virus que ha causado la pandemia puede permanecer en las superficies durante mucho tiempo. Según la Organización Mundial de la Salud, el virus puede sobrevivir unas 24 horas en superficies de cartón o papel; por ello, el tipo de evaluación planteado por Educación puede resultar peligrosos para la salud y seguridad del profesorado.

.- Además, el protocolo obvia otra cuestión de gran importancia: No se tienen en cuenta los **Riesgos Psicosociales** que se pueden derivar de la coyuntura y los procedimientos de trabajo, ni las medidas de prevención que deberían aplicarse para evitarlos. Es fundamental evaluar estos riesgos y adoptar todas las medidas necesarias para prevenir las consecuencias que pueden sufrir las y los trabajadores/as.

.- y un largo etcétera.

**II.** En cuanto a los **criterios pedagógicos,** en la mayoría de etapas/casos en que el departamento de Educación plantea emprender las clases presenciales el curso lectivo 2019/2020 está prácticamente finalizado, y los centros tienen organizado el final, las evaluaciones, etc. on line. Así, el curso lectivo de 4º de ESO y 1º de Bachiller acaba el 29 de mayo, y el de 2º de Bachiller el 19 de mayo.

Por su parte, consideramos imposible cubrir las necesidades pedagógicas y emocionales de las niñas y niños del ciclo 0-3 con las medidas básicas que deberían adoptarse para garantizar su salud.

Y en Formación Profesional resulta aún más complicado establecer las medidas sanitarias seguras y adecuadas para desarrollar las clases prácticas presenciales cuando las alumnas y alumnos están de prácticas.

**III. Sobre la igualdad de oportunidades del alumnado.** El departamento de Educación, con el pretexto de la autonomía de los centros, renuncia a su responsabilidad y traspasa a cada centro el peso de decidir en qué etapas, fechas y con qué grupos se va a empezar con clases presenciales a partir del 25 de mayo en las etapas/casos indicados (4º de ESO, 1º y 2º de Bachiller, Formación Profesional, ciclo 0-1). Ante la diversidad de decisiones que los centros pueden adoptar, existe el reisgo de que se generen y agraven desigualdades entre las y los escolares.

Por si esto fuera poco, ayer, 19 de mayo, Educación publicó una instrucción sobre la vuelta presencial del personal de educación pública, junto con las notificaciones de las patronales de centros concertados y de ikastolas acerca de su planificación.

El departamento, a consecuencia de la gestión improvisada, precipitada y sin planificar que está desaerrollando ante este final de curso, está sumiendo a las personas que trabajan en el sector, a las y los escolares y al conjunto de la comunidad educativa en una inaceptable situación de incertidumbre y caos.

Teniendo en cuenta esto, ante las deficiencias y carencias que observamos en el planteamiento del departamento y la caótica situación existente, los sindicatos hacemos a Educación una propuesta de final seguro, acordado y de calidad para el curso 2019/2020 en todo el sistema educativo de la CAPV.

## Propuesta sindical para un final de curso seguro

▪ Emprender procesos de negociación reales para que las planificaciones, condiciones, medidas, protocolos y procesos para el final de curso y la vuelta a la actividad presencial se negocien y acuerden con la representación de trabajadoras y trabajadores.

▪ Sobre las carencias observadas en los protocolos sanitarios y el resto de la documentación, procesos y contenidos:

- Compartir y acordar con la representación de trabajadoras y trabajadores las evaluaciones sobre los riesgos relativos al COVID-19 y los planes de contingencia adaptados a aquellas.
- Compartir, debatir y analizar con la representación de trabajadoras y trabajadores la conveniencia de las medidas concretas contempladas en el protocolo.

▪ El departamento de Educación debe establecer un mismo criterio sobre la vuelta a las clases presenciales para todos los centros (en qué etapas y para qué grupos), para evitar así que surjan o se ahonden brechas entre alumnas y alumnos de diferentes centros.

▪ Con el fin de decidir si se deben retomar las clases presenciales en el curso escolar 2019/2020, debería realizarse un serio ejercicio de ponderación sobre los riesgos sanitarios añadidos y las ventajas que pueden tener para el alumnado. Una vez realizado ese ejercicio, los sindicatos proponemos que la

vuelta a las clases presenciales se limite a 2º de Bachillerato, para la preparación de la selectividad (EBAU).

En el caso de las alumnas y alumnos que han sufrido en mayor grado las consecuencias negativas del confinamiento (en especial debido a la brecha digital derivada de razones socioeconómicas, para las y los escolares que han estado y seguirán totalmente desconectados de las clases online) debería analizarse la posibilidad de clases presenciales de refuerzo.

## PETICIÓN

Teniendo en cuenta lo anteriormente expuesto, los sindicatos firmantes de este escrito solicitamos al departamento de Educación que dé comienzo a un procedimiento para negociar y acordar con la representación de trabajadoras y trabajadores la planificación del final de curso, las condiciones de vuelta a las clases presenciales, protocolos y procedimientos para garantizar la salud, así como las medidas concretas.

Además, hasta que esos procesos de negociación se desarrollen y en tanto no se cumplan las reivindicaciones planteadas en la propuesta sindicacl enviada hoy, emplazamos al departamento a dejar de lado las decisiones unilaterales sobre el final de curso, incluida la instrucción del 19 de mayo sobre la vuelta a los centros del personal de la red pública.

Euskal Herria a 19 de mayo de 2020.

ELA EUSKAL SINDIKATUA    LAB >irakaskuntza    steilas    CCOO irakaskuntza    UGT FeSP Zerbitzu Publikoak Euskadi